

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### ERRIBERABEITIKO UDALA

#### Behin betiko onartzea dirulaguntzen udal ordenantza orokorra

2016ko uztailaren 14ko osoko bilkuran, Udalbatzak hasierako onarpena eman zion dirulaguntzen udal ordenantza orokorrari. Erabaki hori jendaurrean egon den aldian ez da aurkeztu ordenantzaren aurkako erreklamaziorik eta, beraz, erabakia behin betiko bihurtu da, apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, toki araubidearen oinarriak arautzen dituenak, 49.c) artikuluan xedatzen duen bezala.

7/1985 Legeak 70.2 artikuluan xedatzen duena betetzeko, osorik argitaratzen da behin betiko erabakia; argitaratzen denetik aurrera aplikatuko da.

Erabaki honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkeztu ahal izango da administrazioarekiko auzietarako epaitegiko administrazioarekiko auzien salan, iragarki hau argitaratu eta hurrengo egunetik bi hilabete pasatu baino lehen, uztailaren 13ko 29/1998 Legeak, administrazioarekiko auzien araubidearenak, 46. artikuluan xedatzen duenarekin bat etorritik. Nolanahi ere, bidezkotzat jotzen den beste edozein errekurtso aurkez daiteke.

### DIRULAGUNTZEN ORDENANTZA OROKORRA

#### HITZAURREA

Apirilaren 7ko 2/2016 Legeak, Euskadiko toki erakundearenak, xedatzen duenaren arabera udalek beren eskumen propio, transferitu edo eskuordetuetan sartu ez arren, beste edozein jarduera, zerbitzu edo prestazio garatu ahal izango dute, baldin eta herritarren bizi kalitatearen hobekuntza dakarren edozein jarduera eremu antolatua eta kudeatzeko bada eta komunitatearen edonolako behar edo interesei erantzuten badie.

Halaber, Erriberabeitiko Udalak, lurraldeko administrazio publikoa denez gero, bi ahal hauek dauzka bere eskumen esparruaren barruan, apirilaren 7ko 2/2016 Legeak, Euskadiko toki erakundearenak, 10. artikuluan eta lehen xedapen gehigarrian ezartzen duenaren arabera: arautegiak onartzeko ahala eta bere burua antolatzeko ahala.

Sektore publikoaren finantza jardunaren zati handi bat dirulaguntzen bitartez bideratzen da; helburua finantza laguntzako neurrien bitartez pertsona eta erakunde publiko eta entitate pribatuen gizarte eta ekonomia eskariei erantzutea da. Dirulaguntzak hain dira garrantzitsuak, ezen esan baitaiteke funtsezko tresnak direla administrazio guztien gizarte politikan eta politika ekonomikoan.

Ekonomiaren ikuspegitik, dirulaguntzak ematea gastu publikoaren modalitate garrantzitsua da. Horregatik, dirulaguntzak aurrekontu politikaren gidalerroetara moldatu behar dira. Oraingo aurrekontu politikaren irizpide nagusiak egonkortasuna eta hazkunde ekonomikoa dira, aurrekontu egonkortasunerako araudian ezarri den bezala.

Dirulaguntzen harreman juridikoa administrazio publiko guztietan homogenea izatea arautzeko asmoarekin, azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra, dirulaguntzena, onartu da, bai eta hura garatzen duen arautegia ere (arautegi hau uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuak, Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren arautegia onartzen duenak, onartzen du).

Asmoa da erantzun egokia ematea gaur egun administrazio publikoen dirulaguntzek gardentasunaren, kontrolaren, finantzen eta zehapen araubidearen arloetan eragiten dituzten beharrezane.

Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorra arautzen duen printzipioetako bat gardentasuna da. Gardentasun handiagoak eragin zuzena du dirulaguntzen gastu publikoaren kudeaketan, efizientzia eta eraginkortasuna hobetzen dira eta. Hori dela eta, dirulaguntzei buruzko informazio gehiago edukitzeak aukera ematen du merkatuan eragina izan lezaketan distortsioak eta interferentziak saihesteko, eta, horrez gainera, administrazio publikoen jarduna errazten du, berez konplexua baita, eta koherentzia ematen dio, bikoiztasunik gerta ez dadin.

Legeko 3.1b) artikulua toki administrazio erakundeak haren aplikazio eremu subjektiboan sartzen ditu; 9. artikulua ezartzen du dirulaguntzak eman aurretik nahitaez onartu behar direla haiek emateko prozedura arautzen duten oinarriak, legean ezartzen denarekin bat etorri. Gauza bera dio araudiko 1.2 artikulua.

Legeko 17.2 artikulua ezartzen du toki korporazioen dirulaguntzak arautzen dituzten oinarriak aurrekontua gauzatzeko oinarrien esparruan onartu behar direla dirulaguntzen ordenantza orokor baten bitartez edo dirulaguntza moten arabera berariazko ordenantzen bitartez.

Azaldutako guztiarengatik egokitzen jo da dirulaguntzen ordenantza orokorra prestatzea Erriberabeitiko Udalak dirutan ematen dituen laguntza guztiak arautzeko. Gero, arlo bakoitzak bere dirulaguntzen oinarriak onartu beharko ditu, eta berariazko oinarriak bat etorri beharko dira nahitaez ordenantza orokor honetan ezartzen denarekin.

Ordenantza hau arautegi orokorra da eta honako hauetara moldatzen da: Dirulaguntzen udal Ordenantza; azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra, dirulaguntzena; uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua, Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren arautegia onartzen duena.

Ordenantza honek titulu eta xedapen hauek dauzka:

- I. tituluak: xedapen orokorrak (1 – 6 bitarteko artikulua).
  - II. tituluak: subjektuak eta dirulaguntza jasotzen duen jardura (7. eta 8. artikulua).
  - III. tituluak: dirulaguntzen prozedura eta kudeaketa (9 – 21).
  - IV. tituluak: dirulaguntzak deusezteak, berrikustea eta itzularaztea (22 – 24).
  - V. tituluak: dirulaguntzen inguruko arau hausteak, zehapen administrazioak eta erantzukizunak (25. eta 27. artikulua).
- Xedapen gehigarria
  - Xedapen indargabetzailea
  - Azken xedapena

## I. TITULUA XEDAPEN OROKORRAK

### 1. artikulua. Xedea

Ordenantza honen xedea da azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak, dirulaguntzenak, eta uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuak, Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren arautegia onartzen duenak, ezartzen dutenaren itzalpean Erriberabeitiko Udalak ematen edo kudeatzen dituen dirulaguntzen araubide juridikoa ezartzea eta dirulaguntza horiek emateko irizpideak eta prozedura finkatzea eta arautzea.

### 2. artikulua. Dirulaguntza zer den eta ordenantzaren aplikazio eremua

1. Ordenantza honi dagokionez, dirulaguntzat hartuko dira Erriberabeitiko Udalak pertsona edo erakunde publikoen alde zein pertsona edo entitate pribatuen alde egiten dituen diru xedapen guztiak, baldintza hauek betez gero:

a) Dirua zuzeneko kontraprestaziorik gabe eman behar zaie onuradunei.

b) Dirua jasotzeko baldintza bat ezarri behar da: dirua proiektu bat gauzatzeko, jarduera bat egiteko edo jarrera bat izateko erabiltzea (xedea gauzatura zein gauzatzeko egon daiteke), edo inguruabar jakin batzuk gertatzea. Gainera, onuradunak ezartzen diren betebeharrak eta materialak bete beharko ditu.

c) Diruz laguntzen den proiektuaren, ekintzaren, jokabidearen edo egoeraren helburua onura publikoko edo gizarte intereseko jarduera bat sustatzea edo toki intereseko helburu publiko bat bultzatzea izan behar da.

2. Dirulaguntzak dira, halaber, bekak, primak eta sariak ere, eta ondorioz ordenantza hone-tako araubidea aplikatuko zaie. Salbuespena: onuradunak eskatu gabe ematen direnak ez dira dirulaguntzat joko.

3. Laguntza edo dirulaguntza udal titulartasuneko ondasunen bat dohainik besterentzea edo gozatzeko eta aprobeztatzeko lagatzea bada, kasuan kasuko ondare arautegian ezartzen dena aplikatuko da.

### 3. artikulua. Ordenantzatik kanpo daudenak

1. Ordenantza orokor honen aplikazio eremutik kanpo daude:

a) Dirulaguntza inpropioak, berriazko zerga legeria edo legeria sektoriala aplikatu behar zaienak.

b) Zerbitzu publiko baten kontzesiodunei zerbitzuaren funtzionamenduaren kontraprestazio gisa ematen zaizkien dirulaguntzak.

c) Beste administrazio batzuek ematen dituzten dirulaguntzak, toki erakundea bitartekaria baino ez denean.

d) Erriberabeitiko Udalak ordezkariak daukan erakundeei (partzuergoak, mankomunitateak, fundazioak, elkarteak, kuadrillak, eta abar) jarduerak modu orokorrean finantzatzeko egiten dizkien ekarpenak, urtero aurrekontuak finantzatzeko egiten dizkien ekarpen ekonomikoez gainekoak.

e) 7/1985 Legeak, toki araubidearen oinarriak arautzen dituenak, bosgarren xedapen gehigarrian aipatzen dituen elkarteei (Udalerrien Federazioa eta Udalen Elkartea) ematen zaizkien dirulaguntzak.

f) Korporazioan ordezkariak duten alderdi politikoei jardun gastuak finantzatzeko egiten zaizkien ekarpenak.

2. Ordenantza orokor hau berriazko araudiaren ordeztatik aplikatuko da kasu hauetan:

a) Europar Batasunaren, Autonomia Erkidegoaren edo beste administrazio publiko baten funtsez baliatuz ematen edo finantzatzen diren dirulaguntzak; lehenbizi aplikatu beharrekoa dirulaguntza (osorik edo zati bat) finantzatzen duen administrazioaren araudia edo baldintza multzoa da.

Araudi horrek ez badu ezartzen nola ematen den dirulaguntza, beraren ordeztatik ordenantza orokor hau aplikatuko da.

b) Lege arau baten arabera ezartzen diren dirulaguntzak; hauei lege araua aplikatuko zaie lehenbizi.

#### 4. artikulua. Araubide juridikoa

Hau da dirulaguntzen lege esparrua:

a) Azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra, dirulaguntzena (hemendik aurrera DLO); uztailearen 21eko 887/2006 Errege Dekretua, Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren arautegia onartzen duena (hemendik aurrera DLOA).

b) Apirilaren 7ko 2/2016 Legea, Euskadiko toki erakundeena (16., 49.2, 51. eta 53. artikulua eta lehenengo xedapen gehigarria) eta uztailearen 19ko 41/1989 Foru Araua, toki ogasunak arautzen dituen (42. artikulua).

c) Toki administrazioa arautzen duen Estatuko oinarritzko legeria: apirilaren 2ko 7/1985 Legea, toki araubidearen oinarriak arautzen dituen, 25. eta 72. artikulua; Toki ogasunak arautzen dituen Legea (testu bategina 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuak onartzen du), 40., 189.2 eta 214.2 artikulua (hemendik aurrera TOAL).

d) Europako araudia: Europar Batasunaren Ituna, 87 – 89 bitarteko artikulua (testu finkatua, 2002ko abenduaren 24an argitaratutakoa); abenduaren 23ko 1755/1987 Errege Dekretua, dirulaguntza-Europako erkidegoak, eta baterako xedapenak.

e) Dirulaguntzen ordenantza orokorra.

f) Aurrekontua gauzatzeko oinarriak eta toki erakundearen organoen eskumenak eta eskurantzak eskuordetzeko araudia, dirulaguntza ematean indarrean daudenak.

#### 5. artikulua. Dirulaguntzen izaera

1. Salbuespen modura ematen diren laguntzek eta dirulaguntzek, zuzenean edo hitzarmen bidez emanez gero interes humanitarioagatik, behar bezala justifikatuta, deialdi publikoa egiteko eragozpenak daudela eta, zenbatekoa gorabehera, aurrekontu zuzkidura egokia eta behar bestekoa eduki beharko dute, eta gastua Udalaren aurrekontu arauetan ezartzen den bezala onartu beharko da.

2. Ordenantza orokor honek arautzen dituen dirulaguntzei baldintza hauek aplikatuko zaizkie:

a) Dirulaguntza borondatezkoa eta noizean behingoa izan behar da, legeztatik eta arauz besterik ezarri ezean.

b) Dirulaguntza bat eman ondoren noiznahi ezeztatu eta txikitu ahal izango da; gainera, dirulaguntza bat emateak ez du emango eskubiderik hurrengo urteetan ere jasotzeko (urte anitzeko gastua izan ezean) eta ezin da alegatu aurrekari gisa, legeztatik eta arauz besterik ezarri ezean.

c) Ezin izango da eskatu dirulaguntzaren zenbatekoa gehitzeko edo berrikustea, aparteko inguruabarrak direla eta izan ezean.

3. Dirulaguntza bat emanez gero, ezinbestean bete behar da baldintza modura ezarritako helburua: interes orokorrerako erabiltzea. Beste alde batetik, dirulaguntzak ez dira itzuli behar, emateko egintzan ezartzen diren baldintzak eta kargak betez gero.

4. Erriberabeitiko Udalak ez du edukiko inolako erantzukizunik (ez zibilik, ez merkataritzakorik, ez lanekorik, ez bestelakorik) beraren dirulaguntzaren bat jasotzen duten pertsonen, erakundeek edo entitateek egiten dituzten jarduketengatik.

#### **6. artikulua. Dirulaguntzak emateko eskumena**

1. Laguntza eta dirulaguntzak emateko eskumena edukiko dute kasuan kasuko gastua baimendu eta xedatzeko ahalmena duten foru organoek, bakoitzak bere eskumenerako eremuan. Nolanahi ere, eskumen hori toki legerian ezartzen denarekin bat etorritik eskuordetu ahal izango da.

## **II. TITULUA**

### **DIRULAGUNTZAREN ONURADUNAK ETA DIRULAGUNTZAREN EDUKIA**

#### **7. artikulua. Pertsona onuradunak: kontzeptua eta betebeharrak**

1. Betekizunak. Onuradun edo erakunde edo entitate laguntzaile izan daitezke dirulaguntza ematea justifikatzen duen egoeran dauden pertsonak, erakundeak eta entitateak, bai eta oinarri arautzaileetan eta deialdian ezartzen diren inguruabarretan daudenak ere, baldin eta onuraduna edo erakunde edo entitate laguntzailea izatea eragozten duten inguruabarretan ez badaude (inguruabarrok azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrek, dirulaguntzak, ezartzen ditu 13. artikuluko 2. eta 3. idatz zatietan).

Dirulaguntza eskatzen duten pertsonen, erakundeek eta entitateek 38/2003 Legeko 13. artikuluko 7. zenbakian ezartzen diren bideak erabili ahal izango dituzte frogatzeko ez dutela ezarrita aurreko paragrafoan aipatzen den debekua, hots, onuraduna edo erakunde edo entitate laguntzailea izateko debekua.

2. Onuradunak. Dirulaguntzaren onuraduna izango da funts publikoak eskuratzen dituen pertsona fisikoa edo juridikoa. Onuradunak dirulaguntza emateko arrazoitzat hartzen den jarduera egin beharko du edo dirulaguntza emateko kontuan hartzen den egoeran egon beharko du.

Orobat, onuradun izan daitezke pertsona fisiko edo juridiko publiko zein pribatuen elkarteak, ondasun erkidegoak eta beste edozein motatako unitate ekonomiko edo ondare bananduak ere, nortasun juridikorik ez eduki arren, baldin eta dirulaguntza emateko arrazoitzat hartzen den proiektua edo jarduerak egiteko gauza badira. Honelako kasuetan, elkartearen ordezkari edo ahaladun bakarria izendatu beharko da.

Aparteko kasuetan izan ezean (behar bezala frogatuta), onuraduna izateko ezinbestekoa da frogatzea egoitza Erriberabeitiko udalerrian dagoela. Gainera, elkarteak EAEko Elkarten Erregistro Orokorrean inskribatuta egon behar dira, eta Udalerriko Elkarten Erregistroan ere bai, egonez gero.

Garapenerako lankidetzarako dirulaguntzei dagokienez, GKEak behar den erregistro publikoan egon behar dira eta, gainera, egoitza zentrala lurralde historikoan egon behar da edo ordezkari iraunkorra eduki behar dute bertan.

3. Betebeharrak. Hauexek dira onuradunen betebeharrak:

a) Dirulaguntza emateko kontuan hartzen den helburua bete, proiektua burutu, jarduera egin edo jarrera eduki behar dute.

b) Dirulaguntza ematen duen erakundeari frogatu behar diote jarduera egin dela edo jarrera hartu dela, bai eta dirulaguntza emateko edo jasotzeko ezarritako baldintzak eta betebeharrak betetzen direla ere.

c) Dirulaguntza ematen duen erakundearen egiaztapen lanak onartu behar dituzte, bai eta Erriberabeitiko Udaleko Kontu-hartzailetzak finantzak kontrolatzeko egiten dituen egiaztapenak eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren edo eskumen hori duten beste organo batzuen gaineko legerian ezartzen diren guztiak ere. Gainera, kontrol lanak egiten utzi beharko diete, ikerketaren xede den dokumentazioa eskura jarri beharko diete eta kopiak egiteko aukera eman beharko diete.

d) Dirulaguntza eman duen erakundeari jakinarazi behar dizkiote Espainiako edo nazioarteko beste edozein administraziok, erakunde publikok zein entitate pribatuk helburu bererako emandako gainerako dirulaguntza eta laguntza guztiak.

Dirulaguntzaren edo laguntzaren berri jakin bezain laster jakinarazi beharko zaio, eta, nahitaez, jasotako funtsak nola erabili diren frogatu baino lehen.

e) Dirulaguntza emateko kontuan hartutako inguruabarren bat, subjektiboa zein objektiboa, aldatu bada, aldaketaren berri eman behar diote dirulaguntza emanda duen erakundeari.

f) Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituztela frogatu behar dute, diru laguntza kobratu baino lehen eta ezartzen den bezala.

Dirulaguntzaren onuraduna erakunde publikoa bada, ez du edukiko zertan frogatu zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela.

g) Kontabilitate liburuak, egindako erregistroak, eta merkataritzako legerian eta kasuan kasuko sektorean aplikatu beharreko legerian eskatzen den bezala ikuskatutako gainerako dokumentuak eduki behar dituzte, edo, bestela, ikuskapen eta kontrol ahalmenak erabili direla ziurtatzen duten kontabilitateko egoera orriak.

h) Gordeta eduki behar dituzte jasotako funtsak nola erabili diren frogatzen duten agiriak, agiri elektronikoak barne, egiaztapen eta kontrol lanen xede izan daitezkeen artean.

i) Dirulaguntza jasotzen duen programa, jarduera, inbertsioa edo jarduketak finantzaketa publikoa daukala adierazi behar diete herritarrei. Horretarako, Erriberabeitiko Udalaren logotipoa erabili beharko dute, edo deialdiaren oinarrietan ezartzen dena. Salbuespena: jardueran agiririk edo egitaraurik egiten ez bada (halakoak dira bekak, sariak eta abar), ez dute hau bete beharko.

j) Ordenantza honetako 22. artikuluan azaltzen diren kasuetan, jasotako funts publikoak itzuli beharko dituzte.

k) Araudian edo deialdiaren oinarrietan ezartzen denarekin bat etorritik, dirulaguntza ematean ezartzen zaizkien betebeharrak bereziak bete behar dituzte.

### **8. artikulua. Dirulaguntza jaso dezaketan jarduerak eta proiektuak**

Diruz lagundu ahal dira berariazko deialdietan programatzen diren jarduerak, zehazten diren arloetakoak, hain zuzen. Dirulaguntzak interes publikoko edo gizarte intereseko obrak edo jarduerak finantzatzeko izan behar dira. Diruz lagundu ahal dira Udalaren eskumeneko osagarri edo ordezkotza diren zerbitzuak eta jarduerak, udalerrientzat interesekotzat joz gero.

Aldiz, otsailaren 18ko 4/2005 Legea, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerakoa, aintzat hartuta, ezin dira diruz lagundu osorik edo zati batean emakumeen eta gizonen berdintasunaren printzipioarekin bat ez datozen jarduerak.

Debekatuta dago dirulaguntzak ematea eskuzabaltasuna irizpidetzat hartuta; horrelako dirulaguntzak deusezak izango dira.

Udalak arlo hauetan eman ahal izango ditu dirulaguntzak ordenantza honetan xedatzen diren prozeduren bitartez:

a) Kultura: arteekin, zientziekin eta letrekin zerikusia duten kultura jardueretarako dirulaguntzak. Halaber, dirulaguntzak eman ditzake kultura askotarikotasunarekin zerikusia duten denetariko jardueretarako, bai prestakuntzaren arloan (kultura ondarea babestea, hedatzea, sortzea), bai aisialdiaren arloan.

b) Turismo soziala: turismoaren arloan, udalerrian turismoa sustatzeko jardueretarako eta kultura xede nabarmena duten turismo jardueretarako dirulaguntzak.

c) Jaiak: jaien arloan, Erriberabeitiko Udalak udalerriko herrietako zaindari jaiekin edota jai herrikoekin lotutako jardueretarako dirulaguntzak eman ditzake, eta esparru honetan berak egiten dituen jarduerak osatzen dituzten jai ekitaldietarako ere bai.

d) Kirola: dirulaguntzak eman ditzake kirol ekitaldiak edo jarduerak eta kirolaren sustapena-rekin zerikusia duten antolatzeak eragiten dituen gastuetarako.

e) Hezkuntza: guraso elkarteak prestatzeko, mantendu eta funtzionarazteko jardueretarako, eskola garraiorako eta hezkuntzaren sektoreko gainerako jardueretarako dirulaguntzak.

f) Gazteria: Udalak dirulaguntzak eman ditzake animazio soziokulturaleko jardueretarako, gazteentzako programetarako, lehiaketetarako, erakusketetarako, kulturarekin eta gazteen sormenarekin lotutako beste jarduera batzuetarako, informazio eta aholkularitzako programetarako, aisialdirako eta denbora librerako, prestakuntza eta hezkuntza jardueretarako eta, orokorrean, gazteen parte hartzea eta elkartegintza sustatzeko denetariko jardueretarako.

g) Osasuna: herritar guztien zein arrisku bereziko herritarren osasuna zaintzeko, babesteko eta hobetzeko jardueretarako dirulaguntzak. Halaber, hezkuntza eta prebentzio helburuak edukita herritar talde jakinen osasuna sustatzen duten proiektuetarako eta programetarako ere eman ditzake dirulaguntzak.

h) Ingurumena: hiriguneak eta ingurumen naturala babesteko jardueretarako eta ingurumenaz sentsibilizatzeko jardueretarako dirulaguntzak eman ditzake.

i) Lankidetzeta: garatzeko bidean dauden herrialdeekiko elkartasunerako proiektuetarako eta herritarrek herrialde horien egoeraz sentsibilizatzeko ekintzetarako dirulaguntzak.

j) Auzotarren parte hartzea: auzotar elkartearen sustapenerako eta jardunerako jardueretarako dirulaguntzak.

k) Gizarte zerbitzuak: Udalak dirulaguntzak eman ditzake gizarte esku hartzearen alorrean egiten den lanaz informatzeko eta sentsibilizatzeko jardueretarako, gizarte bazterkeria saihesteko jardueretarako, gizarte zailtasuneko egoerei aurre egiteko baliabide pertsonalak sustatzeko eta, orokorrean, pertsona helduei eta laguntza sareak bultzatzen dituzten taldeei laguntzeko.

l) Genero berdintasuna: EAEko Emakumeen eta gizonen berdintasunerako Legean ezartzen diren emakumeen eta gizonen berdintasunerako programak gauzatzeko jardueretarako eta emakumeen kontrako indarkeriari aurre egiteko jardueretarako dirulaguntzak.

m) Ekonomia sustatzea: udalerriko sare ekonomikoa hobetzeko eta dibertsifikatzeko jardueretarako eta erabateko laneratzea eta lan merkatu hobe lortzeko jardueretarako dirulaguntzak.

n) Plangintza estrategikoa: udalerraren egoera ekonomikoa, soziala eta kulturala hobeto ezagutzeko jardueretarako dirulaguntzak.

ñ) Euskara: Udalak dirulaguntzak eman ditzake euskara belaunaldiz belaunaldi igarotzea bultzatzeko jardueretarako, euskara gizarte bizitzaren eremu guztietan erabiltzea sustatzeko eta euskaraz sortzea, ekoiztea, trebatzea eta itzultzea sustatzeko.

o) Familiak eta jaiotzak: Udalak dirulaguntzak eman ditzake umeak dauden familientzat (mota eta osaera gorabehera), bai eta lana eta familia bizitza bateratzen laguntzeko eta umeak edukitzen laguntzeko ere (horren barruan sartzen dira egoera ekonomiko txarrean dauden emakume haurdunentzako laguntzak: dirua eta arreta).

p) Beste batzuk: Udalak dirulaguntzak eman ditzake herritar talde jakin baten alde egiten duen jardunaren osagarri diren jardueretarako.

### III. TITULUA

#### DIRULAGUNTZEN PROZEDURA ETA KUDEAKETA

##### 9. artikulua. Printzipio orokorrak

Bi modu daude dirulaguntzak emateko: norgehiagoka eta zuzenean.

Dirulaguntzak emateko ohiko prozedura lehia askea izango da. Ordenantza honi dagokionez, prozedura hau da lehia askea: dirulaguntzak emateko eskaerak alderatzea; eskaerak alderatu eta haien arteko hurrenkera eratzen da, aurretik oinarri arautzaileetan eta deialdian ezarritako balorazio irizpideak aplikatuz, eta horren arabera balorazio altuena lortzen dutenei ematen zaie dirulaguntza, deialdian jarritako muga eta dagoen kreditua kontuan hartuta.

**10. artikulua. Dirulaguntzen zenbatekoa**

Deialdi bakoitzean eman daitezkeen dirulaguntzen gehieneko zenbatekoak finkatuko dira; dirulaguntzak aurrekontuko partidei egotziko zaizkie baliagarri dauden kredituen arabera, eta horretarako aurrekontua gauzatzeko oinarrietan ezartzen dena aplikatuko da.

Deialdia arautzen duten oinarrietan finantzaketa kopuru jakin bat eskatu ahal izango zaie onuradunei diruz laguntzen den jarduera edo lana estaltzeko.

Dirulaguntzen zenbatekoa banaka ezar daiteke edo, bestela, deialdian ezartzen den gastu edo jarduera ehunekoen arabera kalkula daiteke.

Batera zein bestera, dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoa ez da izango eskatutako zenbatekoa baino gehiago, ez eta jardueraren gastu osoa baino gehiago ere.

Deialdi bakoitzean ezarriko da xede bererako beste dirulaguntza, laguntza, sarrera edo baliabiderik jaso daitekeenez, eta konturako sarrerarik edo ordainketa aurreraturik egingo denez ere bai. Ordainketa aurreratua da funtsak ematea justifikazioa aurkeztu aurretik, dirulaguntza aplikatzen den jarduketarako ezinbesteko finantzaketa iturri gisa.

Deialdian berariaz finkatu ezean, dirulaguntza ordaindu aurretik onuradunak frogatu egin beharko du haren xede den proiektua edo jarduera egin duela.

Onuradunei emandako funtsen ondoriozko finantza etekinak emandako dirulaguntzaren zenbatekoari gehituko zaizkio eta diruz lagundutako jarduerarako aplikatuko dira, dirulaguntzaren deialdia arautzen duten oinarrietan besterik ezarri ezean, arrazoï egokiak azalduta.

**11. artikulua. Aurrekontuko zuzkidura**

1. Dirulaguntzak gastu publikoak izango dira. Deialdi bateko dirulaguntzak emateko ezinbestekoa izango da aurrekontuan zuzkidura egokia eta nahikoa egotea bertan ezarritako xedeetarako, aurrekontuko kredituak gehitu gabe.

2. Kontuhartzaitzari espedientea bidaltzen zaionean txostena egiteko, kontabilitate agiri egokia erantsi beharko da, kudeaketa faseari dagokiona, hain zuzen.

**12. artikulua. Dirulaguntzak norgehiagoka bidez ematea**

1. Deialdiak emateko ohiko prozedura norgehiagoka izango da.

2. Hautapen prozesuaren deialdia egitearekin batera (edo aurretik) beraren oinarriak onartu eta argitaratu beharko dira.

3. Deialdiaren iragarkian lehiaketan aginduzko izango diren oinarrien funtsak azalduko dira. Deialdien gutxieneko edukia DLOko 23.2 artikuluan zehazten da.

4. Hautapen prozesuan batera aztertuko dira (prozedura bakarrean) ezarritako epealdiaren barruan aurkeztutako eskaera guztiak, eta egintza administratibo bakar batean ebatziko dira, honela: dirulaguntza emango zaie oinarri arautzaileetan ezartzen diren baldintzak betetzen dituzten eskaeretatik oinarrietako balorazio irizpideen arabera punturik gehien lortzen dituztenei.

5. Dirulaguntzak emateko eskumena daukan organoak hutsik utzi ahal izango du hautapen prozesua; gainera, ez dauka zertan agortu aurrekontu partidan edo hari lotutako poltsan ezarritako zenbatekoa edo kreditu baliagarria. Ezin da eman deialdian ezartzen den gehieneko kopurutik gorako dirulaguntzarik.

6. Dirulaguntzak emateko prozeduraren izapideak deialdia eragiten duen arloko udal zerbitzuetako teknikoek egingo dituzte. Teknikari horiek ofizioz egingo dituzte ebazpen proposamena egiteko behar diren datuak zehazteko, ezagutzeko eta egiaztatze behar diren jarduera guztiak.

7. DLOko 22.1 artikuluan ezartzen denari dagokionez, kide anitzeko organoa sortuko da eskaerak aztertze eta baloratzeko. Organo horren osaera deialdiaren oinarrietan ezarriko da, arloa kontuan hartuz. Dirulaguntzak emateko proposamena organoburuak egingo du; horretarako deialdiko irizpide teknikoak baloratu besterik ez du egingo.

### 13. artikulua. Dirulaguntzak zuzenean ematea

1. Dirulaguntzak zuzenean eman daitezke kasu hauetan (ez da nahitaezkoa norgehiagoka, ez eta publikotasuna ere):

a) Udalaren aurrekontu orokorrean ezartzen diren dirulaguntza izendunak, aurrekontua gauzatzeko arauan ezartzen diren baldintzak betez gero eta hitzarmenetan eta ordenantza honetan ezartzen denarekin bat etorritik. Honelako dirulaguntzetan zehatz-mehatz azaldu behar da zein den xedea eta zer helburu, asmo, jarduera edo proiekturako erabiliko den.

Udal aurrekontuan urtean mota honetako dirulaguntzetarako zenbat diru erabil daitezkeen ezarri behar da, eta dirulaguntza bakoitzaren onuraduna, xedea eta zenbatekoa zehaztu behar dira.

Aurrekontua gauzatzeko oinarrietan hitzarmen bidez formalizatuko diren mota horretako dirulaguntzak zehaztuko dira. Hitzarmenetan dirulaguntza ordaintzeko eta justifikatzeko moduak zehaztu behar dira.

Hitzarmenik behar ez duten dirulaguntzak aurrekontua indarrean jartzen denetik hamabost egun baliadun pasatu baino lehen ordainduko dira. Dirulaguntzaren justifikazioa aurrekontua gauzatzeko oinarrietan xedatzen den bezala eta bertan finkatzen den epealdian egin behar da edo, bestela, ordenantza honetako 10. artikuluan ezartzen den moduan.

b) Dirulaguntza eman beharra edo haren zenbatekoa lege mailako arau batek ezartzen diotenean administrazioari (honelakoetan bidezko prozedura aplikatuko da emateko).

c) Larrialdiei aurre egiteko dirulaguntzak, publikotasunaren izapidearekin bateragarriak ez direnean.

d) Interes publikoa, soziala, ekonomikoa edo humanitarioa dagoela frogatzen dirulaguntzak eta deialdi publikoa egiteko eta norgehiagoka aplikatzeko eragozpenak dauden dirulaguntzak (eragozpenak frogatu behar dira).

2. Oro har, zuzeneko dirulaguntzak hitzarmen bidez formalizatuko dira; Udalaren aurrekontuan ezartzen diren dirulaguntza izendunak bideratzeko ohiko tresna hitzarmena izango da.

3. Ebazpenean, erabakian edo hitzarmenean honelako dirulaguntzei aplikatuko zaizkien denetarik baldintzak ezarriko dira; honako hauek agertu behar dira:

– Dirulaguntzaren xedea eta onuraduna, aurrekontuko esleipenarekin bat etorritik.

– Gastua zer aurrekontu kredituri egotziko zaion eta dirulaguntzaren zenbatekoa (onuradun bat baino gehiago egonez gero, banakatu egin behar da).

– Xede bererako beste administrazio edo erakunde publiko zein entitate pribatu batzuek –Estatukoek, Europar Batasunekoek nahiz nazioarteko organismoetakoek– emandako beste dirulaguntza, laguntza, sarrera edo baliabide batzuk jasotzearekin bateragarria denez.

– Dirulaguntza noiz eta nola ordainduko den, ordainketa aurreratuak eta konturako ordainketak egin daitezkeen, eta, behar denean, onuradunek aurkeztu beharreko bermeen araubidea.

– Onuradunak noiz eta nola frogatu behar duen dirulaguntza ezarritako xederako erabili duela eta jasotako funtsak behar bezala gastatu dituela.

– Dirulaguntza ematean ezarritako baldintzak ez betetzeak mailakatzeko irizpideak. Irizpide horiek aplikatuko dira onuradunak jasoko duen edo itzuli behar duen zenbatekoa zehazteko; proportzionaltasunaren printzipioan oinarritu behar dira.

– Dirulaguntza behar bezala justifikatzen dela bermatzeko kontabilitateko liburu eta erregistro berezien zehaztapena, beharrezkoa izanez gero.

**14. artikulua. Norgehiagokaren araubidean ematen diren dirulaguntzak arautzen dituzten oinarriak**

1. Ezin da hasi honelako dirulaguntzak emateko prozedura aurretik organo eskudunak dirulaguntzaren araua edo deialdia ezartzen ez badu.

2. Laguntzak edo dirulaguntzak emateko deialdiaren oinarrietan honako hauek zehaztu behar dira, gutxienez:

a) Laguntzaren edo dirulaguntzaren xedea, baldintzak eta helburua, argi eta zehatz.

b) Dirulaguntzak norgehiagoka emango direla.

c) Onuraduna izateko bete beharreko baldintzak, eskatzaileek aurkeztu beharreko agiriak, eskaerak aurkezteko epealdia, eskatzen diren baldintzak betetzen direla frogatzeko epealdia, eta eskaerak nora bidali behar diren.

Berariaz azaldu behar da ezin direla onuradun izan emakumeei eta gizonei berdintasunean aritzea edota parte hartzea galarazten dieten eskatzaileak; salbuespenak: sexu bereko kideez osatutakoak, helburu nagusizat emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzea edo emakumeen eta gizonen interes eta beharrian espezifikokoak sustatzea dutenak.

d) Eskaerak aurkezteko epealdia eta nora (zentroa) bidali behar diren.

e) Dirulaguntzak aurrekontuko zer kredituri egotziko zaizkien.

f) Zein diren izapideak egiteko eta ebazpena emateko eskumena daukaten organoak, eta dirulaguntzak emateko proposamena egingo duen organoaren osaera.

g) Dirulaguntzak nola emango diren, horretarako aplikatuko diren irizpide objektiboak eta haien arteko haztapena.

h) Laguntza edo dirulaguntza bakoitzaren zenbatekoa, edo zenbateko hori ezartzeko irizpideak, eta haiek emateko ezarri den gehieneko zenbatekoa, behar izanez gero.

i) Noiz eta nola frogatu behar duten pertsona onuradunek dirulaguntza ematean ezarritako helburua bete dutela eta jasotako funtsak behar bezala erabili dituztela, eta noiz eta nola aurkeztu behar dituzten frogagiriak.

j) Beste laguntza, dirulaguntza, sarrera edo baliabide batzuekin bateragarriak diren ala ez. Bateragarritasuna onartuz gero, nahitaez ezarri behar dira gehiegizko finantzaketa saihesteko mugak edo irizpideak.

k) Nola eta noiz ordainduko diren dirulaguntzak; behar den kasuetan, konturako ordainketarik edo ordainketa aurreraturik egin daitekeenez; ordainketa aurreratuak edo konturako ordainketak egiteko aukera emanez gero, pertsona onuradunek noiz eta nola egin ditzaketen, eta horretarako aurkeztu beharreko bermeak; herritarren interesak babesteko beharrezkotzat jotzen diren gainerako berme neurriak.

l) Bi kasutan jasotako dirua itzuli beharko dela: laguntza edo dirulaguntza emateko ezarritako baldintza guztiak betetzen ez badira; jasotako zenbatekoa egindako jardueraren kostua baino gehiago izanez gero.

m) Nola itzuli behar den dirua honako bi kasu hauetan: baldintza guztiak betetzen ez direnean; itzuli beharreko laguntzaren bat jasotzen denean. Gainera, zein kasutan salbuesten den jasotako kopuru osoa, edo zati bat, itzuli behar izatetik.

n) Pertsona onuradunek Udalak, Kontuhartzaitzak Herri Kontuen Euskal Epaitegiak eta gainerako organo eskudun guztiek eskatzen dieten informazio guztia eman behar dutela.

o) Interes publikoa babesteko beharrezkotzat jotzen diren gainerako berme guztiak. Gainera, berariaz ezartzen bada dirulaguntzak berrikus daitezkeela, aukera hori dagoela adierazi behar da.

p) Prozedura ebazteko epealdia eta epealdiaren barruan ebazpenik ez ematearen ondorioak; dirulaguntzak arautzen dituzten oinarrien eta deialdiaren aurka aurkez daitezkeen errekursoak; errekursoak zer organo judizialia aurkeztu behar zaizkion eta horretarako dagoen epealdia (nolanahi ere, interesdunek nahi dituzten gainerako errekurso guztiak aurkeztu ahal dituzte).

q) Jakinarazpenak nola egingo diren, dirulaguntzak ematen diren indarrean dagoen administrazio prozeduraren legeak ezartzen duenarekin bat etorritz.

r) Laguntzak eta dirulaguntzak emateko aplikatuko diren oinarri arautzaileak eta haien deialdia DDBNn, ALHAOn eta Udalaren web orrian argitaratu behar dira.

### **15. artikulua. Dirulaguntzak lehia askearen araubidean emateko prozedura**

#### **a) Eskaerak aurkeztea**

1. Dirulaguntzak emateko prozedura pertsona interesdunak eskatuta edo ofizios hasiko da; eskaerak aplikatzen den araudian ezartzen denarekin bat etorritz aurkeztu behar dira Erregistroan.

2. Ofizios hasten bada, organo eskudunak onartutako deialdi batekin emango zaio hasiera, haren oinarri arautzaileek ezartzen dutenarekin bat etorritz.

3. Eskaeretan indarreko administrazio prozeduraren araudian ezartzen diren baldintzak bete behar dira; gainera, normalizatutako ereduaren eta sistemaren arabera egin behar dira.

Eskaerekin batera araudian edo deialdian zehazten diren agiriak eta datuak aurkeztu behar dira, lehendik administrazio jarduleko organo baten esku egon ezean; izan ere, lehendik edukiz gero, azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, herri administrazioen araubide juridiko eta administrazio prozedura erkidearenak, 35.f artikuluan ezartzen duenari heldu ahal izango dio eskatzaileak, baldin eta agiriak eta datuak zer egunetan aurkeztu diren adierazten badu eta prozedura amaitu zenetik bost urte pasatu ez badira.

Onuradunak eskaera aurkezteak baimena emango dio kudeaketa organoari Foru Ogasunak eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorrak egin beharreko ziurtagiriak eskuratzeko.

4. Baliabide informatikorik edukiz gero, Erriberabeitiko Udalak eskaerak telematikoki aurkeztea bultzatuko du, deialdia egiten denean indarrean dagoen administrazio prozeduraren legeak ezartzen duenarekin bat etorritz.

5. Deialdiaren oinarrietan aukera emanez gero, onuradunek erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu ahal izango du agiri jakin batzuen orde. Kasu horretan, dirulaguntza emateko ebazpen proposamena egin aurretik, errekerimendua egin beharko da, erantzukizunpeko adierazpenean jasotako datuak frogatzeko agiriak aurkez daitezzen 15 egun pasatu baino lehen.

6. Eskaera batean akatsik aurkituz gero edo harekin batera aurkeztu beharreko agiriren bat aurkeztu ezean, errekerimendua bidaliko zaio eskatzaileari, hamar egun pasatu baino lehen akatsa zuzentzeko edo aurkeztu gabeko agiriak aurkezteko; errekerimenduan azalduko zaio ezen, eskatutakoa egiten ez badu, eskaeran atzera egin duela pentsatuko dela eta eskaera besterik gabe artxibatuko dela.

#### **b) Prozeduraren izapideak**

1. Prozeduraren izapideak deialdiaren oinarrietan edo dirulaguntzaren araudian ezartzen denaren arabera egingo dira; ebazpena egiteko oinarritzat hartu behar diren datuak zehazteko, aztertzeke eta egiaztatzeke, administrazio prozedura erkidean xedatzen dena aplikatuko da.

2. Instrukzio organoak ebazpena emateko beharrezkotzat jotzen diren edo dirulaguntzen araudian eskatzen diren txosten guztiak eskatu ahal izango ditu.

3. Deialdian ezarritz gero, eskaerak ebaluatu ondoren instrukzio organoak ebazpen proposamena helaraziko dio organo eskudunari, ebazpena eman dezan.

4. Ebazpen proposamena deialdian ezartzen den bezala helarazi behar zaio pertsona interesdunari. Horrek 10 eguneko epealdia edukiko du alegazioak aurkezteko. Kasu honetan ez da egin behar izapide hau: proposamenean kontuan hartzen diren gertaera, alegazio eta frogak bakarrik pertsona interesdunak aurkeztutakoak direnean.

5. Ebazpen proposamenak (ez behin-behinekoak, ez behin betikoak) ez du sortzen proposatutako onuradunaren aldeko eskubiderik administrazioaren aurrean, harik eta dirulaguntza emateko ebazpena jakinarazi arte.

6. Ebazpen proposamenean honako datu hauek adierazi beharko dira: dirulaguntza jasotzeko proposatzen diren eskatzaileak eta dirulaguntza bakoitzaren zenbatekoa (ebaluazioa eta ebaluazio irizpideak zehaztuta).

c) Ebazpena eta dirulaguntza ordaintzea

1. Dirulaguntza eskaerak ebazteko eskumena indarreko araudiaren arabera eskumena duten organoek edo horren eskuordetza jasotzen dutenek edukiko dute.

2. Laguntza edo dirulaguntza emateko behin betiko ebazpen proposamena onartu ondoren horretarako arrazoiak azaldu behar dira, indarreko administrazio prozeduraren legearekin bat etorritik eta, behar denean, araudian edo deialdian ezartzen dena aplikatuz. Nolanahi ere, hartzen den ebazpenaren oinarriak eta onuradunek hartutako konpromisoak egiaztatuta geratu beharko dira. Norgehiagoka prozeduretan, ebazpena deialdiaren arauan edo oinarrietan zehazten diren irizpide objektiboen arabera egingo da.

3. Orobat, honako datu hauek adierazi behar dira, berariaz: xedea, dirulaguntza jasoko duen eskatzailea edo eskatzaile zerrenda, zenbatekoa, nola eta noiz ordainduko diren, nola justifikatu behar diren, zer xedapenaren babespean eman diren, eta laguntza edo dirulaguntzen araudian eta dirulaguntzak arautzen dituzten oinarrietan eskatzen diren baldintzak eta betebeharrak. Gainera, berariaz adierazi beharko da gainerako eskaerak ez direla onartzen.

4. Halaber, ebazpenean honako hauen berri emango zaie interesdunei: zer errekurtsio aurkeztu behar diren, zer organo judizial aurkeztu behar dituzten eta zenbateko epealdia daukaten horretarako. Errekurtsioak aurkeztea gorabehera, interesdunek nahi dituzten eskubide guztiak erabil ditzakete.

5. Prozedura ebazteko eta ebazpena jakinarazteko gehieneko epealdia araudian ezartzen dena izango da, edo, bestela, sei hilekoa deialdia argitaratzen denetik.

Epealdi horretan eskaerak berariaz ebazten ez badira, ezetsizat jo beharko dira.

#### **16. artikulua. Dirulaguntzak argitaratzea**

1. Dirulaguntza jasotzeko prozesu batean parte hartzeak berekin ekarriko du isilbidez onartzea datu pertsonalen tratamendua eta datuok argitaratzea, 1. idatz zatian azaltzen den bezala, abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak, datu pertsonalen babesarenak, ezartzen duenarekin bat etorritik, berariazko oinarrietan besterik finkatu ezear.

2. Oro har, ematen diren dirulaguntzak Dirulaguntzen Datu Base Nacionalean eta indarreko araudiarekin bat etorritik lege ezartzen den lekuan argitaratuko dira, datu hauek zehaztuta: deialdia, aurrekontu partida, onuradunak, bakoitzaren zenbatekoa eta helburua.

3. Kasu hauetan ez da beharrezkoa izango dirulaguntzaren berri argitaratzea:

a) Dirulaguntzak esleipen izenduna daukanean erakundearen aurrekontuetan.

b) Dirulaguntza onuradun jakin bati ematea eta haren zenbatekoa lege mailako arau batek xedatzen duenaren ondoriozkoak direnean.

c) Dirulaguntzaren xedea dela eta, pertsona onuradunaren datuak argitaratzea maiatzaren 5eko 1/1982 Lege Organikoak, ohorerako, pertsonaren eta familiaren intimitaterako eta

norberaren irudirako eskubidearenak, edo abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak, datu pertsonalen babesarenak, ezartzen duenaren aurkakoa izan daitekeenean, baldin eta 1. idatz zatian azaltzen den publikotasunaren salbuespena dirulaguntzaren araudian ezarrita badago.

### **17. artikulua. Onarpena**

Dirulaguntza bat eraginkorra izango bada, ezinbestekoa da onuradunak dirulaguntza bera eta beraren baldintzak onartzea, inolako eragozpenik jarri gabe, deialdiaren oinarrietan edo dirulaguntza emateko erabakian ezartzen den bezala (modua eta epealdia).

Onuradunak ez badu aurkezten onarpena ezarritako epealdian edo onartzeko eragozpenak aipatzen baditu, Udalak hauetako bat hautatu ahal izango du: beste epealdi bat eman onartzeko edo dirulaguntzari uko egin diola pentsatu.

### **18. artikulua. Gastu konpromisoa eta ordainketa**

1. Dirulaguntza emateko ebazpenak gastua egiteko konpromisoa ekarriko du berekin.
2. Dirulaguntza ordaindu aurretik onuradunak frogatu beharko du haren xedea bete dela eta oinarri arautzaileetan ezarritako jarduera, proiektua edo helburua gauzatu dela.
3. Nolanahi ere, konturako ordainketak egin daitezke, dirulaguntzaren izaera dela eta bidezkoa bada. Konturako ordainketek zatikako ordainketak eragin ditzakete diruz lagundutako ekintzak gauzatu ahala. Kasu bakoitzean, aurkezten den justifikazioari dagokion kopurua ordainduko da.
4. Aurreratutako ordainketak egin ahal izango dira, hots, funtsak justifikazioa aurkeztu aurretik ematea, dirulaguntzaren xede diren jarduketak finantzatu ahal izateko, dirulaguntzaren oinarri arautzaileetan ezarritako gero. Inolaz ere ezin izango zaie egin ordainketa aurreraturik Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorrak 13. artikuluko 2. eta 3. zenbakietan aipatzen diren egoe-retako batean dauden onuradunei.
6. Dirulaguntza ezin izango da ordaindu onuradunak edo erakunde edo entitate laguntzaileak bere zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean ez dauzkan bitartean, ez eta itzularazketa ebazpen baten ondorioz zorduna den bitartean ere.
7. kasu guztietan, onuradunak Udalarari ezer zor badio, dirulaguntza eta zorra konpentsatu ahal izango dira.
8. Konturako ordainketa edo ordainketa aurreratua eginez gero, hartzaileari bermeak eskatu ahal izango zaizkio, diruz lagundutako obra edo jarduera osorik egitea eta dirulaguntzaren helburuak betetzea ziurtatzeko.

### **19. artikulua. Justifikazioa**

1. Deialdiaren oinarrietan ezartzen diren beste justifikazio modu batzuk gorabehera, dirulaguntzen onuradunek jasotzen dituzten funts publikoak ezarritako xederako erabili dituztela frogatu beharko dute.
2. Dirulaguntzen justifikaziorako jatorrizko agiriak aurkeztu behar dira, berariazko oinarrietan eta dirulaguntza emateko erabakian xedatzen denarekin bat etorriz. Agiri hauek nahitaez aurkeztu behar dira:
  - a) Gastuaren justifikazio kontua; honako hauek eduki behar ditu, aitortzailearen erantzukizunpean: diruz lagundutako jarduerak eragindako gastuen frogagiriak; behar den kasuetan, programarekin edo jarduerarekin lortutako sarreraren frogagiriak. Kontu hau aurkezteko aldizkotasuna finkatu beharko da.

Frogagiri horiek dirulaguntzaren xedea betetzeko egindako gastuak egiaztatu behar dituzte nahitaez; justifikazioan ez dira onartuko beste xede batzuetarako egindako gastuen frogagiriak.

Justifikazio kontuaren edukia eta hura aurkezteko epealdia dirulaguntza publikoen oinarri arautzaileetan ezarritako dira.

Oinarri arautzaileetan ezer ezarri ezean, justifikazio kontuan dirulaguntzarekin finantzatutako jardueren eta horien kostuaren berri eman beharko da, gastu bakoitza xehatuta. Honelako kasuetan, justifikazio kontua jarduera egiteko epealdia amaitzen denetik hiru hilabete pasatu baino lehen aurkeztu beharko da.

b) Gastuak frogatzeko fakturak aurkeztu behar dira, edo frogagiri baliokideak, merkataritzako trafiko juridikoan baliozkoak direnak edo eraginkortasun administratiboa dutenak, arauz ezarritakoarekin bat etorritik.

Gastuak faktura elektronikoen bitartez ere frogatu ahal dira, baldin eta zergen arloan horrelakoak onartzeko eskatzen diren betekizunak betetzen badira.

Gastuaren frogagiriak balidatzeko eta zigilatuzko sistema ezarriko da araudi batean, dirulaguntzen pilaketa kontrolatu ahal izateko.

c) Diruz lagundutako jarduera finantzatzeko dirulaguntzaz gainera norberaren funtsak edo beste dirulaguntza edo baliabide batzuk ere erabiltzen badira, justifikazioan kopuru horiek aipatu behar dira: jarduerarako erabili direla frogatu, zenbatekoa zehaztu eta nondik lortu diren azaldu.

Zerbitzu kudeatzaileak berariaz sortutako zigilua ezarri beharko du onuradunak aurkezten dituen agirietan, dirulaguntzaren zenbatekoaren berri emateko.

d) Ondasun higiezinaren bat eskuratuz gero, eskrituraren kopia aurkeztu beharko da.

e) Dirulaguntza obra bat egiteko bada eta administrazio publiko batek egiten badu, onarpenaren akta eta likidazioa aurkeztu beharko dira. Gainera, konturako ordainketarik eginez gero, obra ziurtagiriak aurkeztu beharko dira. Obra administrazio publikoa ez den erakunde batek egiten badu, teknikari zuzendariaren ziurtagiriak aurkeztu beharko dira, eta kontratistaren fakturak edo likidazioa ere bai.

f) Dirulaguntzaren xede izan den jarduera amaitutakoan onuradunek bidezkoz jotzen dituzten agiriak aurkeztu beharko dizkiote Udalari, deialdiaren oinarrietan ezarritik gero, eta honako hauek, besteak beste:

1. Egindako jarduerak azaltzen dituen memoria. Bertan, lortutako emaitzak baloratu behar dira.

2. Emandako laguntza ekonomikoari esker gauzatutako jardueraren egindako ikerketak, programak, argitalpenak, iragarki kartelak eta gainerako dokumentazio guztia (grafikoa zein idatzizkoa): ale bana.

3. Onuradunak aurkeztutako justifikazioa Erriberabeitiko Udaleko Kontuhartzaitzara bidaliko da, diruz lagundutako jardueretarako jasotako funts publikoak nola erabili diren egiazta dezan.

## **20. artikulua. Diruz lagundu daitezkeen gastuak**

1. Ordenantza orokor honetan ezartzen denari dagokionez, hauexek dira diruz lagundu daitezkeen gastuak: inolako zalantzarik gabe dirulaguntza jasotzen duen jardueraren izaerarekin bat etorritik, oinarri arautzaileetan ezarritako aldiaren egiten diren gastuak. Gastu hauen kostua ezin da izan merkatuko balioa baino gehiago.

2. Dirulaguntzen oinarri arautzaileetan berariaz kontraktorik xedatu ezean, egindako gastutzat joko dira dirulaguntzaren araudian justifikaziorako finkatutako epealdia amaitu aurretik ordaindutako gastu guztiak.

3. Diruz lagundu daitezkeen gastuaren zenbatekoa sektore publikoko kontratuen legerian kontratu txikietarako ezarritako zenbatekoak baino gehiago bada, onuradunak gutxienez hiru hornitzailei eskatu beharko die eskaintza egiteko zerbitzua egiteko edo ondasuna emateko konpromisoa hartu baino lehen, kasu hauetan izan ezik: diruz lagundu daitezkeen gastuen ezaugarri bereziak direla eta, merkatuan ez dagoenean ondasun edo zerbitzu hori egiten edo ematen duen entitate nahikorik; dirulaguntza eskatu aurretik gastua eginda dagoenean.

Aurkeztutako eskaintzak justifikazioan edo dirulaguntzaren eskaeran azaldu beharko dira. Haien artean hautatzeko eraginkortasuna eta irizpide ekonomikoak hartuko dira aintzat; hautatzen den eskaintza ez bada diru aldetik hoberena, hautapena memoria batean justifikatu beharko da.

4. Ondasun inbentariagarriak eskuratu, eraiki, birgaitu eta hobetzen badira, arau hauek aplikatuko dira:

a) Berariazko oinarrietan finkatuko da zer alditan erabili beharko dituen pertsona onuradunak ondasunak dirulaguntzaren xedea lortzeko. Erregistro publikoan inskribatzen diren ondasunen kasuan, aldia ezin da izan bost urte baino laburragoa; gainerako ondasunen kasuan, bi urtekoa izan behar da gutxienez.

Erregistro publikoan inskribatzen diren ondasunen kasuan, eskrituran horren berri agertu behar da, bai eta emandako dirulaguntzaren zenbatekoa ere. Kontu horiek erregistro publikoan inskribatu behar dira.

b) Aurreko paragrafoan aipatzen dena, ondasuna ezarritako xederako erabili beharra, ez da beteko ondasuna besterentzen bada edo kargaren bat jartzen bazaio. Horrek dirulaguntza itzularaztea ekarriko du, DLOk II. tituluko II. kapituluan eta DLOAko III. tituluan ezartzen den bezala, eta ondasuna itzuli beharreko kopuruaren ordainketari atxikita geratuko da, edukitzailea nor den gorabehera, kasu hauetan izan ezik: edukitzailea erregistroko fede publikoak babestutako hirugarrena denean; frogatzen denean ondasuna onustez eta bidezko tituluarekin eskuratu dela, edo merkataritzako zein industriako establezimendu batean eskuratu dela, inskribatzen ez den ondasun higigarria bada.

5. Aurreko 4. idatz zatian aipatzen den xedearen betebeharra betetzat joko da kasu hauetan:

a) Ondasuna ez bada inskribatzen erregistro publikoan, dirulaguntzaren xedea betetzeko balio duen beste ondasun batekin ordeztzen bada eta ezarritako aldia amaitu arte erabiltzen badira horretarako; ezinbestekoa da toki erakundeak edo dirulaguntza eman duen organoak ondasuna ordezteko baimena ematea.

b) Ondasuna erregistro publikoan inskribatzen bada, dirulaguntza eman duen organoaren baimena beharko da ondasunaren xedea aldatzeko, ondasuna besterentzeko edo haren gainean kargaren bat jartzeko. Horrelakoetan eskuratzailleak bere gain hartuko du ondasuna dirulaguntzaren xederako erabili beharra ezarritako aldia amaitu arte; gainera, hori betetzen ez badu, dirulaguntza itzuli beharko du.

## **21. artikulua. Frogagiriak egiaztatzea**

1. Dirulaguntza emateko izapideak egiten dituenak frogagiriak ezarritako epealdiaren barruan aurkeztu diren egiaztatuko du. Horrez gainera, egiaztapen formala ere egingo du, eta onuradunari eskatu ahal izango dio akatsak zuzentzeko, falta diren agiriak aurkezteko edo informazio gehiago emateko.

2. Toki erakundeak diruz lagundutako gastuen merkatuko balioa egiaztatu ahal izango du; horretarako DLOko 33. artikuluan ezartzen diren irizpideak aplikatuko ditu.

3. Toki erakundeak zuzenean egiaztatu ahal izango du nola doan diruz lagundutako obra edo jarduera, bere langileen bitartez zein enpresaren bat kontratuz.

## **22. artikulua. Diruz lagundutako jarduerak azpikontratatzea**

Jarduera baterako dirulaguntza jasotzen duenak hura egiteko lanak azpikontratatu ahal izango ditu, osorik zein zati bat, DLOko 29. artikuluan eta DLOAko 68. artikuluan ezartzen denarekin bat etorriz.

#### IV. TITULUA DIRULAGUNTZAK ITZULARAZTEA

##### 23. artikulua. Dirulaguntza itzularazteko arrazoiak

Dirulaguntza bat emateko ebazpena baliogabetzeko edo deuseztatzeko Dirulaguntzen Lege Orokorrak 36. artikuluan ezartzen diruen kasuetan ez ezik, honako kasu hauetan ere jasotako kopuruak itzuli beharko dira eta laguntza edo dirulaguntza ordaindu denetik dirua itzularaztea erabaki arte sortutako berandutze interesak ordaindu beharko dira:

a) Dirulaguntza lortzeko eskatzen diren inguruabarrak faltsutzea edo hura ematea eragotziko zuen zerbait ezkutatzea.

b) Dirulaguntza emateko ezinbestekotzat jotzen den helburua, jarduera edo proiektua ez betetzea (osorik edo zati bat) edo hartarako ezarritako jarrera ez edukitzea, edo dirulaguntza emateko ezarritako baldintzetako bat ez betetzea.

c) Dirulaguntza justifikatu beharra ez betetzea edo justifikazioa nahikoa ez izatea, ordenantza honetako 17. artikuluan eta, beharrezkoa bada, dirulaguntzei buruzko arauetan ezartzen denarekin bat etorriz.

d) Dirulaguntzaren berri emateko neurriak, ordenantza honetako 14. artikuluko 4. idatz zatian arautzen direnak, ez ezartzea.

e) Ordenantza honetako 6. artikuluan ezartzen diren egiaztapeneko eta finantza kontroleko jarduketak ez onartzea edo haiei traba egitea edo aitzakiak edo oztopoak jartzea. Halaber, kontabilitateko, erregistroko eta agirien zaintzaren arloko betebeharrak ez betetzea, baldin eta horren ondorioz ezin bada egiaztatu hartutako funtsak zertarako erabili diren, helburua bete den, diruz lagundutako jarduerak benetan eta etengabe egin diren, eta helburu bererako Estatuko edo Europar Batasuneko beste administrazio edo erakunde publiko zein entitate pribatu batzuen edo nazioarteko erakundeen dirulaguntza, laguntza, sarrera edo baliabide gehiago jaso den.

f) Ez betetzea.

##### 24. artikulua. Dirulaguntza itzuli behar dutenak

Onuradunek jasotako kopurua (osori edo zati bat) eta beraren berandutze interesak itzuli beharko dituzte ordenantza honetako 22. artikuluan aipatzen diren kasuetan. Horrez gainera, kasu batzuetan baliteke zehapena ere ezartzea.

Itzuli beharreko kopuruak zuzenbide publikoko sarrerak izango dira; dirua ez bada itzultzen ezarritako aldian, premiamendu bideari ekingo zaio.

##### 25. artikulua. Dirua itzultzeko prozedura

Dirulaguntza eman duen organoak edukiko du eskumena jasotako zenbateko osoa edo zati bat itzuli behar dela ebazteko.

Dirulaguntza itzultzeko prozedura ofizioz hasiko da, hura eman duen organoak eskatuta, goragoko agindu baten ondorioz, beste organo baten eskaera arrazoituaren ondorioz edo gai hori kontrolatzeko edo ikuskatzeko eskumena duen organo batek eskatuta, salaketaren ondorioz edo partikularrak berak egindako jakinarazpenaren ondorioz.

#### V. TITULUA DIRULAGUNTZEN ARLOKO ARAU HAUSTEAK, ZEHAPEN ADMINISTRATIBOAK ETA ERANTZUKIZUNAK

##### 26. artikulua. Arau haustek eta zehapen administratiboak

Dirulaguntzen arloko administrazioko arau haustek dira DLOk 59. artikuluetan eta hurrengoetan aipatzen dituen egiteak eta ez-egiteak.

Arau hausteak arinak, larriak edo oso larriak izango dira, kasuan kasukoa aurreko legean arautzen denaren arabera. Arau hausleei lege horretan zehazten diren zehapenak ezarriko zaizkie.

Zehapena isuna izango da, finkoa edo proportzionala. Diru zehapen proportzionala bidegabe lortu edo aplikatutako edo justifikatu gabeko kopuruaren gainean aplikatuko da. Isun honek ez du loturarik edukiko dirua itzuli beharrarekin (ordenantza honetako 24. artikulua), eta kobratzeko zuzenbide publikoko sarreratzat hartuko da eta Dirubilketarako Araudi Orokorra aplikatuko da.

Gertatutakoa delitua izan ahal bada, toki erakundeak edo berari atxikitako erakunde batek jurisdikzio eskudunari jakinaraziko dio eta zehapen prozedura etengo du harik eta epaileak epai irmoa eman, jarduketak artxibatu edo largetsi, edo Fiskaltzak espedientea itzuli arte.

Zehapenak mailakatzeko eta haien zenbatekoa zehazteko DLOk 60., 61., 62. eta 63. artikuluetan ezartzen duena aplikatuko da.

### **27. artikulua. Erantzuleak**

Dirulaguntzen arloko arau hauste administratiboen erantzuleak izango dira jardunez edo ez jarduteagatik ordenantza honetan aipatzen diren arau hausteetako bat egiten duten pertsona fisikoak edo juridikoak, publikoak zein pribatuak, eta ordenantza honetako 7. artikuluan aipatzen diren nortasun juridikorik gabeko entitateak, eta honako hauek batik bat: a) Dirulaguntzen onuradunak eta ordenantza honetako 6. artikuluko 2. idatz zatian aipatzen diren pertsona eta entitateetako kideak, hartutako konpromisoen arabera dirulaguntzaz baliatuta egin beharreko jarduerak direla eta.

b) Entitate laguntzaileak.

c) Jarduteko gaitasunik ez duten dirulaguntza onuradunen legezko ordezkariak.

d) Dirulaguntzaren xedearekin edo haren justifikazioarekin lotuta dauden pertsonak eta entitateak, ordenantza honetako 27. artikuluan ezartzen denaren arabera lagundu behar dutenak eta eskatutako agiriak aurkeztu behar dituztenak.

### **28. artikulua**

1. Arau hauste administratiboen zehapenak eskala honen arabera ezarriko dira:

1.1. Arau hauste oso larriak:

a. Diru isun proportzionala: bidegabe lortu edo aplikatutako kopuruaren ehuneko 100 - 150 bitartean.

b. Erriberabeitiko Udalaren laguntzak edo dirulaguntzak jasotzeko eskubidea galarazi ahal izango da, bost urtean gehienez.

c. Bost urtean, gehienez, debekatuta edukitzea Erriberabeitiko Udalarekin kontratuak egitea.

1.2. Arau hauste larriak:

a. Diru isun proportzionala: bidegabe lortu edo aplikatutako kopuruaren ehuneko 50 - 100 bitartean.

b. Erriberabeitiko Udalaren laguntzak edo dirulaguntzak jasotzeko eskubidea galarazi ahal izango da, hiru urtean gehienez.

c. Hiru urtean, gehienez, debekatuta edukitzea Erriberabeitiko Udalarekin kontratuak egitea.

1.3. Arau hauste arinak:

a. Diru isuna: 75,00 - 300,00 euro.

b. Erriberabeitiko Udalaren laguntzak edo dirulaguntzak jasotzeko eskubidea galarazi ahal izango da, urtebete gehienez.

c. Urtebete, gehienez, debekatuta edukitzea Erriberabeitiko Udalarekin kontratuak egitea.

2. Artikulu honetan aipatzen diruen arau hausteen zehapenak mailakatzeko inguruabar hauek hartuko dira kontuan: araua hautsi duenaren asmoa, lehendik ere dirulaguntzen arloko araurik hautsi duenez, haustearekin lortutako irabazia eta egindako kalteak.

3. Artikulu honetan aipatzen diren zehapenak ezartzea gorabehera, onuradunak dirua itzuli beharko du, ordenantza honetan ezartzen den bezala.

4. Arau hauste baten zehapena ezartzeko hura gertatzen denean indarrean dagoen administrazio prozeduraren legean ezarritako prozedura aplikatuko da, abuztuaren 4ko 1398/1993 Errege Dekretuak, zehatzeko ahalmena erabiltzeko prozeduraren araudia onartu duenak, ezartzen duenarekin bat etorri.

5. Espedientea ofizioz hasi ahal izango da dirulaguntza eman duen organoaren ikerlanen, Erriberabeitiko Udaleko Kontuhartzailetak finantzak kontrolatzeko egiten dituen egiaztapenen edo Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren jardunaren ondorioz. Egiaztapen eta kontrol lan horiek guztiak berariazko araudiekin bat etorri egin behar dira.

6. Zehapenak ezartzeko ebazpenak emateko eskumena dirulaguntzak emateko eskumena daukan organoak edukiko du.

7. Zehapena ezartzen duten epai irmoak ALHAOn argitaratuko dira.

#### **29. artikulua. Erantzukizun subsidiarioa**

1. Dirua itzultzeko eta zehapena ordaintzeko erantzukizun subsidiarioa edukiko dute pertsona juridikoen administratzaileek, baldin eta hautsitako eginbeharrak betetzeko behar diren jarduketak egiten ez badituzte, eginbeharrak ez betetzea dakarten erabakiak hartzen badituzte edo haien menpe daudenek horrela jokatzeko onartzen badute.

2. Orobat, jarduerari uzten dioten pertsona juridikoen administratzaileak erantzule subsidiarioak izango dira, bai dirua itzultzeko, bai zehapenak ordaintzeko.

3. Onuraduna desegindako eta likidatutako sozietatea edo entitatea izanez gero, dirulaguntza itzuli beharra eta zehapena ordaindu beharra bazkideei edo kapitaleko partaideei eskualdatuko zaizkie; erantzule solidarioak izango dira, muga honekin: adjudikatutako likidazio kuotaren balioa.

#### **Xedapen gehigarria**

Ordenantza honetako manuak berez aldatuko dira toki erakundeak eta beraren erakundeek ematen dituzten dirulaguntzei zuzenean aplikatzen zaizkien arauetako bat aldatuz gero.

Indarrean jarraituko dute aldatutako arauko printzipio berriekin bateragarriak diren manuek, bai eta printzipio horiek modu harmonikoan interpretatzeko aukera ematen dutenek ere, ordenantza hau berariaz aldatzen ez den bitartean.

#### **Xedapen indargabetzailea**

Indarrrik gabe geratzen dira ordenantza orokor honetan ezartzen denarekin bat ez datozen maila bereko eta beheragoko mailako xedapen guztiak, eta honako hau, batik bat: ALHAOn 2015eko apirilaren 27an argitaratutakoa (50. zenbakia), udalerriko elkarteei eta irabazteko asmorik gabeko entitateei kultura eta kirol jarduerak egiteko dirulaguntzak emateari buruzkoa.

#### **Azken xedapenak**

Lehena. Ordenantza orokor honetan arautzen ez den guztirako honako hauetan xedatzen dena aplikatuko da: azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra, dirulaguntzena; uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua, Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren arautegia onartzen duena; toki erakundearen arautegi organikoa; aurrekontua gauzatzeko oinarriak; toki erakundearen gobernu organoen eskumenei buruzko araudia (hauek guztiak, dirulaguntza ematean indarrean daudenak).

Bigarrena. Dirulaguntzen ordenantza orokor hau apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, toki araubidearen oinarriak arautzen dituenak, 70.2 artikuluan ezartzen duen aldia amaitu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean, testu osoa ALHAOn argitaratu ondoren, eta indarrean egongo da berariaz aldatu edo indargabetu arte.

Rivabellosa, 2016ko irailaren 19a

*Alkatea*

*PEIO RUIZ GARCÍA*